



OSOKO BILKURA
2018/02/22
2 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

**NIK, IÑAKI GALDOS LANDAK,
ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN-
BEHINEKO IDAZKARI NAIZENEZ,
honako hau**

**D. IÑAKI GALDOS LANDA EL
SECRETARIO ACCTAL. DEL ILUSTRE
AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR.-----**

ZIURTATZEN DUT:

Bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeita bian, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak egin zuen bilerako aktaren zirriborroa honako hau dela:

Elgoibarren eta bertako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeita bian, arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Udalbatzarraren Osoko Bilkura lehenengo deialdian bildu da, ezohiko bilera egiteko, Ane Beitia Arriola Alkate- lehendakariaren gidaritzapean, eta honako zinegotzi hauek bertan direla: Eusko Alderdi Jeltzalea Udal-taldearen buru den Ane Beitia Arriola andrea, Iosu Arraiz Aramburu jauna, Maialen Gurrutxaga Uranga andrea, Gorka Garaizabal Agirregomezkorta jauna, Bittori Zabala Fernandez andrea, Andrea Arriola Ferrer andrea, Blanca Larrañaga Iriondo Andrea, Ioseba Arrizabalaga Mendikute jauna eta Unai Arizmendiarieta Garcia jauna. Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean, Mireia Isasmendi Aizpiri Andrea, Miren Arrate Arrieta Jauregi andrea eta Joseba Osoro Iturbe jauna. Euskal Sozialistak Udal-taldearen izenean, Nerea Alustiza Alonso andrea eta Fernando Suarez Varela jauna.

Ez dira bertaratu: EH BILDU Udal-taldearen izenean; Jose Luis Ibarzabal Eguibar jauna, Iñaki Larrañaga Etxabe jauna eta Jon Peli Uriguen Ansola jauna.

Iñaki Galdos Landa Jaunak, behin-behineko idazkariak, bileraren fede eman du.

**LEHENENGOA.- 2018KO
URTARRILAREN 25EAN EGINDAKO
BILERARI DAGOKION AKTA
ONARTZEA.-**

CERTIFICO:

Que el borrador del acta de la sesión celebrada por el Pleno Municipal el día veintidós febrero de dos mil dieciocho, es del tenor literal siguiente:

En la Villa de Elgoibar y su Casa Consistorial, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día veintidós de febrero de dos mil dieciocho, reúnen en primera convocatoria el Ayuntamiento Pleno para celebrar sesión extraordinaria, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta Doña Ane Beitia Arriola y a la que asisten los Corporativos: Por el Grupo Municipal del Partido Nacionalista Vasco, del que forma parte la Sra. Alcaldesa: Don Iosu Arraiz Aramburu, Doña Maialen Gurrutxaga Uranga, Don Gorka Garaizabal Agirregomezkorta, Doña Bittori Zabala Fernandez, Doña Andrea Arriola Ferrer, Doña Blanca Larrañaga Iriondo, Don Ioseba Arrizabalaga Mendikute y Don Unai Arizmendiarieta García. Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Doña Mireia Isasmendi Aizpiri, Doña Miren Arrate Arrieta Jáuregui y Don Joseba Osoro Iturbe. Por el Grupo Municipal PSE-EE: Doña Nerea Alustiza Alonso y Don Fernando Suárez Varela.

No asisten: Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar; Don Jose Luis Ibarzabal Eguibar, Don Iñaki Larrañaga Etxabe y Don Jon Peli Uriguen Ansola.

Da fe del acto el Secretario acctal. Don Iñaki Galdos Landa.

**PRIMERO.- APROBACIÓN DEL ACTA
CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN
CELEBRADA EL DÍA 25 DE ENERO DE
2018.-**



OSOKO BILKURA
2018/02/22
2 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Bozketa egin ondoren, aho batez onartu da bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hogeita bostean egin zen bilerari dagokion akta.

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión celebrada el día veinticinco de enero de dos mil dieciocho, la misma es aprobada por unanimidad.

BIGARRENA.- 2018KO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA;

SEGUNDO.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE LAS ORDENANZAS FISCALES 2018;

-Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatuko dituen ordenantza.

-Ordenanza reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas sobre el impuesto de Bienes Inmuebles.

-Udalerriko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ordainarazpenerako zenbait ahalmen erregulatzen dituen Ordenantza Fiskala.

-Ordenanza Fiscal reguladora de determinadas facultades para la exacción del Impuesto sobre Actividades Económicas en el municipio.

Aho batez onartu eta erabaki izaera hartu du, Udal Kudeaketarako Batzordeak eman duen honako irizpen honek:

Es aprobado por unanimidad, elevándolo a la categoría de acuerdo, el siguiente dictamen de la Comisión de Gestión Municipal:

“Alde batetik, eraikin bat Bizigune programarako lagatzeagatik, Ondasun higiezinaren gaineko zergaren aitortutako hobarria zehazteko beharra dagoela ikusi da.

“Considerando, por una parte, que se ha visto la necesidad de concretar la bonificación reconocida para el Impuesto de bienes inmueble por la cesión de un inmueble al programa Bizigune.

Beste alde batetik, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren hobarria eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea idaztean akats bat izan dela antzeman da.

Por otro lado, se ha detectado un error en la redacción del periodo de presentación de solicitudes de bonificación en la ordenanza sobre el impuesto de actividades económicas.

Horiek horrela, Batzorde honek Udaltzaren Osoko Bilkurari proposatzen dio ondorengo **AKORDIOAK** har ditzala:

Ésta Comisión propone al Pleno de la Corporación la adopción de los siguientes **ACUERDOS:**

Lehenengoa.- Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatuko dituen Ordenantzaren aldaketa lehendabizikoz onartzea, ondoren adieraziko denaren arabera

Primero.- La aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas sobre el impuesto de bienes inmuebles, en los términos que se reflejan.



OSOKO BILKURA
2018/02/22
2 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Aipaturiko proposamena ondorengo da:

Las citada propuesta es como sigue:

1.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO BURUZKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATUKO DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

1.- ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES.

5.4 art. Honela idatzita geratuko da:

El art. 5.4 queda redactado de la siguiente manera:

4. Zergari dagokion kuota osoaren %50eko hobaria izango dute, Eusko Jaurlaritzak 2002ko abenduaren 30ean eman zuen 316/2002 Dekretuaren bidez onartu zen Bizigune programaren barruan, erabiltzeko lagapena eginda duten eraikinek. Hobaria lortzeko ezinbestekoa izango da eskaera egitea, eta ez da atzeraeragina ezartzeko aukerarik izango. Eskabideak aurkezteko epea ekitaldi bakoitzaren urtarrilaren 1etik 31ra izango da. Hobariak eskaera egiten den ekitaldirako balioko du (beti ere, lagapen kontratua zerga sortu aurretik sinatu bada). Hobaria ezin izango da beste urte batzuetara luzatu, eta horri dagokion zenbatekoa ordainagiria ematerako orduan deskontatuko da.

4.- Bonificación del 50% de la cuota total del impuesto, a los bienes inmuebles con cesión de uso, dentro del programa Bizigune, para vivienda vacía, aprobado mediante Decreto 316/2002 de Gobierno Vasco de 30 de diciembre de 2002. La bonificación tendrá carácter rogado, sin que sea de aplicación la retroactividad. El plazo de solicitud será del día 1 al 31 de enero de cada ejercicio y la bonificación sólo afectará al ejercicio en el que se realiza la solicitud (siempre y cuando, el contrato de cesión sea de fecha anterior a la del devengo del impuesto), no prorrogable a otros años y la cantidad correspondiente a la misma se descontará a la hora de emitir el recibo.

Bigarrena.- Udalerriko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainarazpenerako zenbait ahalmen erregulatzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa lehendabizikoz onartzea, ondoren adieraziko denaren arabera.

Segundo.- La aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza fiscal reguladora de determinadas facultades para la exacción del impuesto sobre actividades económicas en el municipio.

1.- UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN ORDAINARAZPENERAKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

1.- ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE DETERMINADAS FACULTADES PARA LA EXACCION DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONOMICAS EN EL MUNICIPIO.

8.b artikulua azken paragrafoa honela idatzita geratuko da:

El último párrafo del art. 8.b queda redactado de la siguiente manera:

Hobari-eskaerak aurkezteko epea: Hobari-eskaerak urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean aurkeztuko dira.

Plazo para la presentación de solicitudes de bonificación: Las solicitudes de bonificación se presentarán del 1 de enero al 31 de marzo.



OSOKO BILKURA
2018/02/22
2 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Hirugarrena.- Akordio hau guztiau 30 lanegunez, Udaleko iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, jendaurrean jartzea, egon daitezkeen erreklamazioak edo oharra aurkezteko.

Laugarrena.- Era berean, aipaturiko epea igarotakoan, erreklamaziorik edo oharrik aurkezten ez baldin bada, aldaketa horiek behin betiko bihurtuko dira.”

**HIRUGARRENA.- EZKONTZA ZIBILA
BAIMENTZEKO, ESKUORDETZEARI
BURUZ ALKATETZAK EGINIKO
EBAZPENAREN BERRI EMATEA.-**

Udalbatzarraren Osoko Bilkurak Alkateak eman duen honako Ebazpenaren berri izan du:

“Kode Zibilaren 51.artikuluak emandako ahalmenak erabiliz, Toki Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 n) eta 3. artikuluari dagokionez eta Toki Korporazioen Antolakuntza, Iharduera eta Lege-Jaurbidearen 44 artikuluari dagokionez, honako hau agindu dut:

1.- Elgoibarko Udaleko Zinegotzia den JON PELI URIGUEN ANSOLA jaunari, ANDER GERENABARRENA GARCIA jauna eta DAFNE LEO GILETE andrea ezkontzeko baimena ematea. Ezkontza 2018ko martxoaren 24an izango da.

2.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatza Osoari hurrengo egingo duen bilkuran, Tokiko Korporazioen Antolakuntzari, Jarduerari eta Lege-Araubideari buruzko Araudiaren 44.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.- Honako erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Tokiko Korporazioen Antolakuntzari, Jarduerari eta Lege-Araubideari buruzko

Tercero.- Someter el presente acuerdo información pública, en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, por el plazo de 30 días hábiles a efectos de reclamaciones u observaciones que pudieran deducirse.

Cuarto.- Considerar que, si transcurrido dicho plazo no hubiera reclamación ni observación alguna, dichas modificaciones devendrán como definitivas.”

**TERCERO.- DAR CUENTA DE
RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA SOBRE
DELEGACIÓN DE FACULTAD PARA
AUTORIZAR MATRIMONIO CIVIL.-**

El Pleno de la Corporación se da por enterado de la siguiente Resolución de Alcaldía:

“En uso de las atribuciones conferidas por el artículo 51 del Código Civil, en relación con el artículo 21.1 n) y 3 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local y con el artículo 44 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, vengo a disponer:

1.- Delegar en favor de DON JON PELI URIGUEN ANSOLA, Concejal del Ayuntamiento de Elgóibar, la facultad para autorizar el matrimonio de DON ANDER GERENABARRENA GARCIA y DOÑA DAFNE LEO GILETE, a celebrarse el día 24 de marzo de 2018.

2.- Dar cuenta al Pleno de la presente resolución en la próxima sesión que celebre, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales.

3.- La presente resolución se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa con los efectos previstos en el artículo 44.2 del Reglamento de Organización,



OSOKO BILKURA
2018/02/22
2 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Araudiaren 44.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales.

4.- Dekretu hau interesdunei eta Jon Peli Urigüen Ansola jaunari jakinaraztea.”

4.- Dar traslado del presente Decreto a los interesados, así como a D. Jon Peli Urigüen Ansola.”

LAUGARRENA.- EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. ZER GERTATZEN DA EMAKUMEEK EZ BADUTE ZAINTZEN, EZ KONTSUMITZEN, EZ LAN EGITEN, EZTA PARTE HARTZEN ERE?.-

CUARTO.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES. ¿QUÉ PASA SI LAS MUJERES NO CUIDAN, NO CONSUMEN, NO TRABAJAN Y NO PARTICIPAN?.-

EAJ Udal Taldearen bozeramaile den Zabala andreak ondorengo adierazpen instituzionala irakurri du:

Por parte de la portavoz del Grupo Municipal del PNV, Sra. Zabala, se procede a dar lectura a la siguiente Declaración Institucional:

“Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez kontsumitzen, ez lan egiten, ezta parte hartzen ere?

“¿Qué pasa si las mujeres no cuidan, no consumen, no trabajan y no participan?

Hausnarketa horrexek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdi bat egitea erabaki zuen, non eta 70 herrialdetan baino gehiagotan; aurten, 2018an, “Emakumeok planto. Nosotras paramos” leloaren pean errepikatuko da. Grebaren xedea da emakumeen lanak gure gizartean duen inpaktua ikusaraztea eta lan hori aintzat har dadila eskatzea.

Esta reflexión llevó el año pasado al movimiento feminista a lanzar una convocatoria de huelga internacional de mujeres en más de 70 países y este año 2018 se repite bajo el lema de “Emakumeok Planto. Nosotras paramos”. La huelga tiene por objeto visibilizar el impacto que tiene en nuestra sociedad el trabajo de las mujeres y exigir que este sea reconocido.

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, pertsonak zaindu (haurrak, adinekoak, mendekoak...) edo etxeko lanak egin. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egingo litzateke.

El bienestar de nuestra sociedad no sería posible sin la realización de actividades imprescindibles para la sostenibilidad de la vida como el cuidado de las personas (niñas y niños, mayores y personas dependientes...) o el mantenimiento de las tareas del hogar. Estas labores, mayoritariamente no remuneradas, recaen principalmente en las mujeres. Sin su contribución la sociedad se pararía.

Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoiztutako ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek

Gran parte del trabajo de las mujeres está invisibilizado y no se contabiliza. Esto implica no solo que se subestime el valor de los bienes y la riqueza producidas en los hogares; además, niega e invisibiliza la



egiten dituzten zeregin hauen orduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta zeregin horiek zaintza, osasun, giza eta babes arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtzen dela.

Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan eskainitako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren %56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren %74 ere. Gainera, feminizatutako lan asko, batez ere emakumeek egiten dituzten lan asko, enplegu prekarizatukoak dira edo lan-merkatuko ezkutuko ekonomiakoak. Sektore horretan, gainera, migratutako emakume ugari enplegatzen dira, eta beroriek jatorrizko inguruneetan beren haurrak beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar izan dituzte; hala, zaintza-kate globalak sortzen dira.

Eta egiten dituzten zeregin ez harantzagoko kontua da; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonak denbora gehiago dute beren karrera profesionala eta lan-munduko karrera garatzeko, edo aisiako edozein jarduera sozial egiteko, emakumeek jarduera horietan sartzeko zailtasunak izan arren.

Denboraren erabilera desberdin hau traba handia da berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumeei buruzko estereotipoak betikotzeaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egiturazko oztopo ere bada, besteak beste.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da gizarteak aitortzea zaintza-lana ezinbestekoa dela bizitzaren iraunkortasunerako; zaintzen inguruko jendarte mailako antolakuntza berri bat babestu beharra dago zeregin hori beste modu batera hornitzeko, gizonen

horas y la contribución económica que suponen estas labores realizadas mayoritariamente por mujeres, e invisibiliza asimismo el enorme ahorro social que suponen en servicios de cuidado, sanitarios, sociales y de protección.

Si tenemos en cuenta las horas dedicadas dentro y fuera del mercado de trabajo, las mujeres asumen en nuestra sociedad el 56 % del mismo, pero realizan el 74% del trabajo no remunerado. Además, muchos de los trabajos feminizados, ocupados principalmente por mujeres, forman parte del empleo precarizado o incluso de la economía sumergida en el mercado laboral. Además, en este sector se emplean muchas mujeres migradas, que han tenido que delegar el cuidado de su familia en otras mujeres de sus entornos de origen, construyendo así las cadenas globales de cuidado.

Y es que no se trata únicamente de las tareas que realizan, sino que como consecuencia del tiempo que las mujeres dedican al cuidado y a las tareas del hogar, los hombres disponen de más tiempo que emplean en el desarrollo de su carrera profesional y laboral, o de cualquier actividad social o de ocio a la que las mujeres tienen grandes dificultades de acceso.

Este uso diferencial del tiempo constituye un importante freno para el avance en el objetivo de la igualdad traduciéndose en la perpetuación de los estereotipos sobre hombres y mujeres y en un obstáculo estructural para conciliar las diferentes responsabilidades atribuidas por género, entre otras consecuencias.

Por todo ello, resulta imprescindible reconocer socialmente los cuidados como condición indispensable para la sostenibilidad de la vida, apoyar una nueva organización social de los cuidados que redistribuya su provisión, impulsar la corresponsabilidad de los hombres, hacer



OSOKO BILKURA
2018/02/22
2 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

erantzunkidetasuna sustatu beharra dago, gizartea antolatzeko modu honen ondorioz erabakimen- eta botere-guneetan emakumeen talentuaren galera dagoela ikusarazi behar da, antolakuntza- eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrokatu behar dira, eta bizitza pertsonalaren eta laneko bizitzaren kontziliazioa sustatuko duten zerbitzu publikoak indartu behar dira.

Egoera honetaz OHARTZEN DENEZ, Elgoibarko Udalak hitza ematen du

Sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatuko dituela, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzekeo guneak emakumeekin partekatzeko.

Bere eskumenen alorrean lagunduko duela zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezen, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.

Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatuko dituela.

Balioen transmisioa azpimarratuko duela, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaketak susta daitezen.

Azkenik, herritarrei dei egiten die martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten."

EH Bildu Elgoibar Udal Taldeko Bozerramailea den Isasmendi andreak do irakurritako adierazpenean dei egiten dela martxoaren 8an antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan modu aktiboan parte hartzera.

visible la pérdida de talento de las mujeres en espacios de decisión y poder que provoca este modelo de organización social, alinear la cultura organizativa y empresarial con la igualdad y fortalecer los servicios públicos que favorezcan la conciliación entre vida laboral y personal.

CONSCIENTE de esta situación, el Ayuntamiento de Elgoibar se compromete a

Desarrollar programas de sensibilización y formación dirigidos a fomentar la corresponsabilidad de los hombres en las tareas de cuidado y mantenimiento del hogar, así como a compartir los espacios de decisión con las mujeres.

Contribuir en el ámbito de su competencia al desarrollo y consolidación de recursos y servicios públicos para apoyar el cuidado y promover la articulación de estrategias comunitarias para la corresponsabilidad social en los cuidados.

Desarrollar las políticas municipales con perspectiva de género.

Incidir en la transmisión de valores para promover cambios culturales hacia una sociedad igualitaria.

Finalmente, llama a la ciudadanía a participar de manera activa en los diferentes actos y acciones que se organicen y convoquen con motivo del 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres."

La Sra. Isasmendi Portavoz del Grupo Municipal EH Bildu Elgoibar dice que en la declaración presentada se convoca a participar de modo activo en los actos y acciones que se han organizado y convocado para el 8 de marzo.



OSOKO BILKURA
2018/02/22
2 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Bertan grebaren gaia azaltzen ez denez, galdetzen du ea grebarekin bat egiten ote den.

Puesto que en la declaración no se expone el motivo de la huelga, pregunta si se van a adherir a la huelga.

Zabala andreak dio grebarekin ez. Greban parte hartzea erabaki pertsonala izango da, baina Udalak, erakunde bezala ez du grebara deituko.

La señora Zabala dice que a la huelga no. Participar en la huelga es una decisión personal, pero el Ayuntamiento, como institución, no va a llamar a la huelga.

Isasmendi andreak dio adierazpena honi ezetza emango diotela, eta horren arrazoiak emango dituela.

La señora Isasmendi dice que van a votar en contra de esa declaración, y que va a exponer las razones para ello.

laz, 70 herrialde baino gehiagotan, emakumeek nazioarteko emakumeen grebarako deialdia zabaldu zuten, emakumeen kontra indarkeria eta desberdintasun molde ugari eragiten dituen munduaren aurrean. Aurtengo martxoaren 8an Euskal Herriko mugimendu feministak, sindikatuak (ELA, LAB, ESK, CNT, STEE-EILAS, CCOO, UGT) eta hainbat eragile politikok bat egin dugu EMAKUMEOK PLANTO – NOSOTRAS PARAMOS aldarriarekin, emakumeak menpean hartzen eta zapaltzen dituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzeke.

El año pasado, en más de 70 naciones, las mujeres realizaron una convocatoria de huelga internacional de mujeres, ante un mundo que genera numerosos modos de violencia y discriminación en contra de las mujeres. El 8 de marzo de este año, los movimientos feministas, los sindicatos (ELA, LAB, ESK, CNT, STEE-EILAS, CCOO, UGT) y diferentes agentes políticos nos hemos unido, bajo lema EMAKUMEOK PLANTO – NOSOTRAS PARAMOS, para denunciar el sistema capitalista, racista y heteropatriarcal que somete y oprime a las mujeres.

Martxoaren 8ko aurtengo proposamena greba bat baino gehiago da, bere helburua emakumeek jasten duten bazterkeria agerian uztea da, eta berau eragiten duen sistema kapitalista eta patriarkala salatzea. Helburua kalean antolatuko diren mobilizazioetan emakumeei protagonismoa ematea da, elkartu eta alternatibak sortzeko aukera eskainiz.

La propuesta para este 8 de marzo es más que una huelga; su objetivo es dejar en evidencia la discriminación que sufren las mujeres, y denunciar el sistema capitalista y patriarcal que la genera. El objetivo radica en dar protagonismo a las movilizaciones de mujeres que se organizarán en la calle, ofreciendo la posibilidad de asociarse y crear alternativas.

Guzti honegatik, mugimendu feministak, gehiago euskal sindikalgintzaren babesarekin, aurkeztu duen ekimen berezia kontuan hartuz eta hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia dela baloratu ostean, EH Bilduk ez du aurkeztuko Martxoaren 8ari begira bere adierazpen propioirik eta ez du babestuko ere mugimendu feministak egindako deialdiarekin bat egiten ez duen adierazpenik.

Por todo ello, teniendo en cuenta la iniciativa especial que ha presentado el movimiento feminista, con el apoyo de la mayoría sindical vasca, y tras valorar que es el momento de pasar de las palabras a la acción, EH Bildu, de cara al 8 de marzo, no va a apoyar ninguna declaración propia, y tampoco va a apoyar ninguna declaración que no se adhiera a la convocatoria realizada por el movimiento feminista.



OSOKO BILKURA
2018/02/22
2 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia dela baloratu ostean EH Bilduk bat egiten du:

Martxoaren 8an lan, ikasketa, zaintza eta kontsumo esparruetara deituta dagoen grebarako deialdiarekin.

12:00etan eta 20:00etan gauzatuko diren mobilizazioekin.

Emakumeak deitzen dira greba egitera, eta grebaren seinale gisa, besoko morea janzteko, eta balkoi nahiz leihoetan amantalak eskegitzeko proposamenarekin.

Ez kontsumitzeko deialdiarekin, batez ere enpresa merkataritza gunek handiak saihestuz, azkeneko horiek baitira lan esplotazioaren eta baliabideen ustiaketa basatiaren ikur esanguratsuenetakoak.

EAJ Udal Taldeko Bozeramailea den Zabala andreak dio, irakurri berri dugun adierazpenaren harira, guztiz bat gatz aurtengorako aukeratu den aldarrikapenarekin: zaintza lanak eta etxeko lanak, betidanik eta gehiengo izugarri emakumeenak izan diren eta diren lanak.

Bai, lanak. Ez dute soldatarik, ez dute barne produktu gordinean konputatzen, desbalorizatuak, inbisibleak... Baina LANAK, letra larriz. Askotan esaten da emakume horiei buruz: "ez du lanik egiten". Kontuz!! Ez dauka lanpostu bat etxetik kanpora, ez dauka ordaindutako lanpostu bat. Baina lana egin egiten du. Ikusten ez dena, ez da baloratzen. Zer gertatuko litzateke gure gizartean "langile" horiek gabe? Jasanezina izango litzateke, eta akabo gure ongizatea. Ongi bizitzea nahi dugu, bizitza kalitatea nahi dugu. Beraz, goraiatu ditzagun, eman diezaiegun merezitako balorea zaintza

Tras valorar que es el momento de pasar de las palabras a la acción, EH Bildu se adhiere a lo siguiente:

A la convocatoria de huelga que está convocada para el 8 de marzo en los ámbitos de la enseñanza, cuidados y consumo.

A las movilizaciones que se van a llevar a cabo a las 12:00 y a las 20:00.

Así, se llama a las mujeres a que hagan huelga, y se realiza la propuesta de que, en señal de huelga, se coloquen un brazalete morado, y cuelguen delantales en los balcones y ventanas.

También se adhiere a la convocatoria de no consumir, y sobre todo, de evitar los grandes espacios comerciales, puesto que estos últimos son los símbolos más significativos de la explotación laboral y de la explotación salvaje de los recursos.

La portavoz del Grupo Municipal EAJ-PNV Sra. Zabala dice: al hilo de la declaración que acabamos de leer, estamos totalmente de acuerdo con la reivindicación que se ha elegido para el presente año: los cuidados y las tareas del hogar, son trabajos, que desde siempre han sido, y siguen siendo muy mayoritariamente de las mujeres.

Sí, trabajos. Son trabajos sin sueldo, no computan para el producto interior bruto, están desvalorizados, son invisibles... Pero son TRABAJOS con mayúsculas. Muchas veces, cuando se habla de estas mujeres, se dice "no trabaja". ¡Pero, cuidado! No tiene un puesto de trabajo fuera de casa, no posee un trabajo remunerado. Pero trabaja. Lo que no se ve, no se valora. ¿Qué ocurriría en nuestra sociedad, si no existieran esas "trabajadoras"? Sería insostenible, desaparecería nuestro bienestar. Queremos vivir bien, queremos calidad de vida. Por tanto, alabemos, demos el valor



OSOKO BILKURA
2018/02/22
2 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

lanei eta etxeko lanei. Gure aitortza osoa dute.

que merecen a los cuidados y a los trabajos de casa. Tienen todo nuestro reconocimiento.

Eta zaintza eta etxeko lanez gain, lan-merkatuan lana egiten duten emakumeak? Orduan arazoak biderkatu egiten dira: kontziliazioa dela, soldata arrakala dela, prekariedade dela, kristalezko sabaia, lanaldi bikoitzak edota hirukoitzak, ezkutuko ekonomia... Kasu batzuetan desberdintasunak bista-bistan daude. Baina beste batzuetan sotilak dira. Ireki ditzagun begiak, jantzi ditzagun betaurreko moreak. Emakumeok gizartearen erdia gara, baina gure eskubideek, gure aukerek ez dute proportzio hori betetzen gizartean. Agintari publiko moduan, langile moduan, ikasle moduan, guraso moduan, herritar moduan...denok dugu gure ekarpena egiteko betebeharra.

¿Y aparte de los cuidados y las tareas del hogar, qué decir de las mujeres que trabajan en el mercado laboral? En ese caso, se multiplican los problemas: la conciliación, la brecha salarial, la precariedad, el techo de cristal, las dobles o triples jornadas, la economía sumergida... En algunas ocasiones, las diferencias son evidentes; pero en otras, son sutiles. Abramos los ojos, pongámonos las gafas moradas. Las mujeres formamos la mitad de la sociedad, pero nuestros derechos, nuestras oportunidades no cumplen esa proporción en la sociedad. Como autoridades públicas, como personas trabajadoras, como estudiantes, como madres y padres, como ciudadanos y ciudadanas, todas y todos tenemos la obligación de realizar nuestra pequeña aportación.

Azkeneko hamarkadetan aurrerapauso haundiak eman dira emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunean. Baina ez gaituzten arrakasta horretaz itsutu. Asko dago egiteko oraindik!!

En las últimas décadas, hemos avanzado mucho en el tema de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres. Pero no nos ceguemos con ese éxito. ¡Aún queda un largo camino por recorrer!

Eta 18ak eta 50 minutu direnean, PSE-EEko zinegotzia, Alustiza andrea bilerara bertaratu da.

Siendo las 18 horas y 50 minutos, se incorpora a la sesión la Concejala del PSE-EE, Sra. Alustiza.

Zabala andreak, Berdintasun Sailak martxoaren 8aren inguruan antolatu duen egitarau zabalaren berri ematen du.

La señora Zabala da cuenta del amplio programa que el Departamento de Igualdad ha organizado en torno al 8 de marzo.

Egunean bertan, martxoaren 8an arratsaldeko 19.30ean kalegoen Plazan Martxa Morea konbokatuko da.

Ese mismo día, el 8 de marzo, a las 19:30, se convocará la Marcha Morada en Kalegoen plaza.

Horretaz gain, beste hainbat ekitaldi izango dira. Oraintxe bertan Emakumeen Kontseiluaren bilera izan dugu, eta nahiz eta hobeto idatziko diren egingo diren ekitaldiak, esan, esanguratsuen izango dela Elgoibarko Emakumeen batukada.

Además, se celebrarán otras actividades. Acaba de finalizar la reunión del Consejo de Mujeres, y a pesar de que se tienen que redactar mejor las actividades que se van a llevar a cabo, decir, que la actividad más



OSOKO BILKURA
2018/02/22
2 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Bestalde martxoaren 1etik 26ra hainbat ekimen daude, denak kultura Sailarekin, Gotzon Garate Udal Liburutegiarekin, Ongarri Zine Klubarekin eta beste batzuekin elkarlanean antolatutakoak, eta horregatik Berdintasun Salletik eskertza adierazi nahi diegu.

Ongarri Zineklubak martxoaren 1ean eta 8an, bi pelikula emango ditu, beti ere emakumeek egindako filmak, eta hauexek dira. "Julia ist" eta "Alanis".

Martxoaren 7an ipun kontalaria izango da Dorleta Kortazarren eskutik Gotzon Garate udal Liburutegian, eta izenburua izango da "Heldu eskutik".

Martxoaren 10ean, larunbatean, soinu kontzertua izango da 12.30ean Kultur Etxeko sotoan, Sustrai Emakumeen Akordeoi Taldeak eskainia.

Egun berean, emakumeen bazkaria izango da Karakate jatetxean.

Astelehenean 12an, irakurketa feminista tailerra izango da, gaia garapen pertsonala irakurketaren bitartez izango da, Loredi Salegik dinamizatua, Gotzon Garate Udal Liburutegian.

Bestalde, erakusketa bat egongo da Emakume Raketistei buruz. Kultur Etxea 12tik 26ra okupatuta dagoenez, erakusketa hau Olaizaga Kirolegiko tabernan izango da.

Erakusketaren gaia kirol bat denez, eta tabernatik jende asko ibiltzen denez, egokia iruditu zaigu erakusketa hau bertan egitea, martxoaren 12tik 26ra arte.

Horrekin lotuta, martxoaren 13an dokumentala eta mahaingurua izango da Musika Eskolan.

significativa será la Batucada de mujeres de Elgoibar.

Por otra parte, del 1 al 26 de marzo, se van a llevar a cabo diversas iniciativas organizadas en colaboración con el Departamento de Cultura, la Biblioteca Municipal Gotzon Garate, el Cine Club Ongarri y otros. Por ello el Departamento de Igualdad desea mostrar su agradecimiento.

El Cine Club Ongarri, el 1 y el 8 de marzo, proyectará dos películas realizadas por mujeres: "Julia ist" y "Alanis".

El 7 de marzo habrá una sesión de cuenta cuentos de la mano de Dorleta Kortazar en la Biblioteca Municipal Gotzon Garate, bajo el título "Heldu eskutik".

El 10 de marzo, sábado, se celebrará un concierto de acordeón a las 12:30, en el sótano de la Casa de Cultura, ofrecido por Sustrai Emakumeen Akordeoi Taldea.

El mismo día, se celebrará una comida de mujeres en el restaurante Karakate.

El 12 de marzo, lunes, se llevará a cabo un taller de lectura feminista con el tema "desarrollo personal a través de la lectura", dinamizado por Loredi Salegi, en la Biblioteca Municipal Gotzon Garate.

Por otra parte, se realizará una exposición sobre las Mujeres Raquetistas. Al estar ocupada la Casa de Cultura del 12 al 26 de marzo, esta exposición se mostrará en el bar del Polideportivo Olaizaga.

Puesto que el tema de la exposición es deportivo, y el bar suele estar muy concurrido, nos ha parecido adecuado celebrar la exposición en el mismo, del 12 al 26 de marzo.

Vinculado a ello, el 13 de marzo, se ofrecerá el documental y habrá una mesa redonda en la Musika Eskola.



OSOKO BILKURA
2018/02/22
2 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Martxoaren 16an zine forma izango da, "A las 5 de la Tarde" pelikularekin, Loredi Salegik dinamizatuta.

El 16 de marzo, se celebrará una sesión de cine fórum con la película "A las 5 de la tarde", dinamizada por Loredi Salegi.

Martxoaren 26an emakumeentzako jabekuntza tailerra izango da Loredi Salegik eskainitakoa eta titulua izango da "Elgoibarren emakume asko gara, anitzak eta baliagarriak, eta elkarrekin..... boteretsuagoak."

El 26 de marzo, se llevará a cabo un taller de empoderamiento para mujeres de la mano de Loredi Salegi bajo el título "En Elgoibar somos muchas, diversas y valiosas, y unidas... más poderosas"

Azkenik, Kultura Sailarekin batera, urtero egiten den moduan, martxoko antzerkia, ostirala 9an, emakumearekin lotutakoa izango da, eta Pez Limbok eskainitako Oxido antzezlan izango da.

Finalmente, en colaboración con el Departamento de Cultura, tal y como se hace todos los años, la obra teatral de marzo, que se ofrecerá el día 9, viernes, estará unido al tema de la mujer. Se trata de la obra teatral Oxido ofrecida por Pez Limbo.

Bestalde, esan dudana bezala, gaur bertan zehaztu diren beste ekintzak, martxoaren 8an egitekoak, komunikatuko dira.

Por otro lado, tal y como he comentado, se comunicarán las demás actividades que se van a llevar a cabo el día 8 de marzo.

Bozketa egin ondoren, Adierazpen Instituzionala onartu egin da honako emaitza honekin:

Sometida a votación, la Declaración Institucional es aprobada con el siguiente resultado:

-Aldeko botoak: 11 (EAJ, PSE-EE).

- Votos en favor: 11 (PNV, PSE-EE)

- Aurkako botoak: 3 (EH Bildu)

- Votos en contra: 3 (EH Bildu)

BOSGARRENA.- ESKARI-GALDERAK.-

QUINTO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-

Ez da ez eskaririk, ez galderarik egon.

No se presentan.

Eta iluntzeko seiak eta berrogeita hamabost minutu direnean, Lehendakari andreak bilkura bukatutzat eman du, eta nik, Idazkari naizenez, hau guztiau egiaztatu dut.

Y siendo las dieciocho horas y cincuenta y cinco minutos, la Sra. Alcaldesa-Presidenta levanta la sesión, extendiéndose la presente acta que yo en calidad de Secretario certifico.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut Alkate andreak oniritziarekin, Elgoibarren bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeita hiruan.-

Y para que así conste, expido la presente certificación con el Vº.Bº. de la Sra. Alcaldesa, en Elgoibar a veintitrés de febrero de dos mil dieciocho.-----

O.E.-Vº.Bº.
ALKATEA, - LA ALCALDESA